

BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure produktua azaldu eta esplikatu dugu. Lehenengo zergatik pentsatu genuen makina hau sortzea eta zer arrazoi ditugun arrakastatsua izango dela pentsatzeko. Ondoren, produktuaren forma, diseinua eta produkzioa nolakoa izango den azalduko ditugu. Eta azkenik, erabilera nolakoa izango den.

Gure produktua martxan jartzeko orduan, hainbat alderdi positibo aurki ditzakegu: Euskal Herrian ez dago billeteetatik guk nahi ditugun txanpon zehatzetara aldatzen duen makinarik eta txanponetatik billeteetara pasatzen duenik ere ez. Produktu honen ideia gehienbat arrazoi hauengatik bururatu zitzaigun: afarietan bakoitzak berea ordaindu behar duenean arazoak sortzen dira, gehienetan, inork ez duelako justu izaten. Makinak tabernetako langileei nahiz bezeroei lana erraztu eta denbora aurreztu diezaieke, bezeroak zerbitzariari kanbioak eskatu ordez makina erabili dezakeelako eta horrela, lanean lasai jarrai dezake. Horrez gain, dendetan bezero gehienek billete handiekin ordaintzen dute eta baliteke dendariak kanbiorik ez izatea. Kasu horretan makina oso lagungarria izango litzateke bientzat. Beraz nobedade handia izango da Euskal Herriko jendearentzat.

Hala ere, ez dira gauza guztiak onak izango. Makinak kanbio gabe geratuko dira edota matxinatu egingo dira. Horregatik, gutxi-gorabehera hiru egunez behin pasatuko da dirua kontrolpean edukiko duen enpresa kanbioak aldatzera. Izan ere, uste dugu epe horretan billeteen eta txanponen kopurua ez dela nahikoa izango, hau da, jendeak erabili/gastatu egingo lukete. Matxuratuta daudenean berriz, makina berak abisu bat bidaliko digu, orduan teknikaria konpontzera joango da.


Azken finean, produktu baten diseinua oso garrantzitsua da bezeroaren atentzia deitzeko momentuan. Produktu berezi eta polit batek itsusi batek baino gehiago erakarriko baitu jendea hau erabiltzera. Beraz, jendea erakarriko duen diseinu bat egin nahi dugu. Diseinuaren barruan Laboral Kutxaren logoa gehituko dugu, izan ere, Euskal Herriko banku batekin kolaboratzea ideia ona izango dela iruditzen zaigu (“funtsezko elkarteak” atalean gehiago sakonduko dugu gai hau).

KOLOREA: Bezeroa erakarri eta jendeari atentzia ematen dion koloreak sartu nahi ditugu makinaren diseinuan. Horregatik erabaki dugu makinak kolore morea edukiko duela eta behealdean Laboral kutxaren logoa eramango du.



TAMAINA: Bezeroarentzat egokia izateko proportzio aproposak adostu ditugu, horrela, denok eroso erabil izango dugu. Makinaren altuera 2 metrokoa izango da eta zabalera 75cm. Pertsona baxuentzat, zein gorpildun aulkietan doazen bezeroentzat gutxi gora behera 1,20 metrotara jarriko ditugu pantaila eta teklatura, denentzat eskuragarri izateko.

Ahalik eta ekonomikoen izateko material ez oso garestiak baino erresistenteak nahi ditugu. Izan ere, edozein ezbehar gertatu ez gero, adibidez, makina lapurtzeko saiakeraren bat edo beste edonolako zerbaitekin, material gogorra izan beharko litzateke puskatu ahal ez izateko. Gure alde lagunduko digun alderdi bat izango dugu: hau da, makina paretan horman sartuta joango da. Honek irekitzeko zein puskatzeko zailtasuna handituko du.



Ondoko irudi hau gure makinaren irudikapen bat da. Bertan 6 atal desberdin ikusten dira:

1-Pantaila: Bertan zenbat diru sartu den eta kanbioa nolakoa izatea nahi den ikusteko.

2-Teklatua: Kanbio mota aukeratzeko, baieztatzeko... Teklatuak braille hizkuntzaz ere egongo da, horrela itsuek makina erabili ahalko dute.

3-Txanponak sartzeko zuloa: Txanpon batzuen kanbioak nahi badira, txanpon horiek sartzeko zuloa.

4-Billeteak sartzeko zuloa: Bilete batzuen kanbioa nahi bada, billete horiek sartzeko zuloa.

5-Erretilua: Kanbioa egindakoan makinak itzultzen digun dirua bertan geratuko da, lurrera ez erortzeko. Bi zatitan dago banatuta: txikiena txanponentzako eta handiena billeteentzako.

6-Sarraila: Barruko dirua seguru egoteko, eta aldatu edo hartu behar bada, baimena duten pertsonak bakarrik ireki ahal izateko.

Laburbilduz, gure proiektua kanbioen makina bat da, non bileteetatik txanponetara, txanponetatik bileteetara, bileteetatik biletetara eta txanponetatik txanponetara aldatu ahal izango den. Bere diseinua arrunta eta ekonomikoena izango dan. Neurriak bezero mota guztiei egokituta egongo dira.

